

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideen bitartez, balorezko proposamena garatu, bezeroengana iritsi, bezeroekiko harremana mantendu eta, azkenik, diru sarrerak lortu ahal izango ditu gure enpresak. Gure enpresak funtziona dezan, funtsezko baliabide batzuk behar ditugu. Hauek izango lirateke behar izango genituzkeen baliabide nagusiak:

Lehenik eta behin, baliabide fisikoei dagokionez, gure mugikor zorroak ekoizteko eta biltegitratzeko lokala, ordenagailua, telefonoa eta gure ondasuna diseinatzeko materiala izango lirateke.

Baliabide intelektualak ere behar ditugu, lehen esan bezala, gure negozio eredu barruan externalizazioa izango dugu, hau da, beste enpresa bati enkargatuko diogu routerren ekoizpena. Eta, guk, gure arreta osoa horien salmentaren estrategian jarriko dugu. Gure produktu bukatuaren diseinua guk egingo dugu, horretarako gaitasuna baitugu. Horrez gain, salmentarako eta antolaketarako abileziari esker momentu oro gure produktuaren jarraipena gure ardura izango da.

Giza baliabideak ezinbestekoak dira enpresa batean. Gure enpresa bost pertsonak osatuko dute. Kide guztion abileziak desberdinak direnez, bakoitzaren gaitasunen arabera banatuko dugu lana. Produktuaren diseinuaz Leire arduratuko da. Mominen lana izango da salmenten jarraipena egitea. Eskaera eta biltegitratzearen jarraipena Eiderrek egingo du. Webgunearen kudeaketa eta bezeroentzako arreta-zerbitzua berriz, Joneren lana izango da. Eta azkenik, Uxue marketingaren arduraduna izango da.

Finantza-baliabideei erreparatuz, enpresak aukera ditzakeen forma juridiko bakoitzaren ezaugarriak aztertu ondoren, eta kontuan hartuta 5 bazkide izango dituela, uste da forma juridiko egokiena erantzukizun mugatuko sozietatearena izango dela, horregatik denen artean jarri beharreko kapitala 3005.06€-koa izango da. Kapital hori gure produktuak sortzeko material eta zerbitzuetan erabiliko dugu.

Horretaz gain, Beasain herrian lokal bat alokatuko dugu gure produktuak kudeatzeko eta biltegitratzeko.